

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

AMURRIKO ESQUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen osaera, Eusko Legebiltzarreko 2020ko uztailearen 12ko hauteskundeetarako

Amurrion, 2020ko maiatzaren 22ko 09:30ak direla. Maiatzaren 18ko 11/2020 Dekretuaren bidez (2020ko maiatzaren 19ko ALHAO) Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak iragarri dira —2020ko uztailearen 12an, igandea, izango dira—. Bat etorritik Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeak 23.3 artikuluan xedatutakoarekin, eta aurreko hauteskundeetarako Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea desegin denez gero, Eusko Legebiltzarrerako 2020ko hauteskundeetarako Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea honela egongo da osatuta:

— Jarduneko lehendakari eta batzordekide judiziala: Arrate Romaneli Martínez, Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 2. ZLUPeko epaile titularra.

— Batzordekide judiziala: Maria Antonia Blanco Briosca, Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 1. ZLUPeko epailea.

— Batzordekide judiziala: Itziar Arteaga-Gurtubai, Artziniegako Epaitegiko bake epaile titularra.

Leire De Lucas Almarza Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 2. zenbakiko epaitegiko idazkaria arituko da Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkari lanetan.

Batzordeko plantilla laguntzailea idazkariak izendatuko du.

Batzordeko lehendakariak agindu du, ekainaren 15eko 5/1990 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, ediktu hau ALHAOn argitara dadila Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen osaeraren berri emateko.

Beste gairik ez dagoenez, lehendakari andreak amaitutzat jo du bilkura, eta hari buruzkoak hemen jasotzen dira, nirekin batera, hau da, idazkariarekin batera, bertaratu direnek sinatu dutelarik. Horren guztiaren fede ematen dut.

Amurrio, 2020ko maiatzaren 22a

Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkaria
LEIRE DE LUCAS ALMARZA